

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**150/2026 Foru Agindua, martxoaren 11koa. Vitoria-Gasteizko eta Burgeluko udalerrietako lurzoru urbanizaezinean Vitoria Solar 2 parke fotovoltaikoa egiteko plan bereziaren hasierako onespenerekin batera erabakitako izapideen epeak luzatzea**

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren otsailaren 6ko 70/2026 Foru Aginduaren bidez, hasierako onspena eman zitzaion Vitoria-Gasteizko eta Burgeluko udalerrietako lurzoru urbanizaezinean Vitoria Solar 2 Parke Fotovoltaikoa egiteko Plan Bereziari, zeina Indarberri SLk egina baita. Ebazpen hori 2026ko otsailaren 9an argitaratu zen ALHAOn (17. zk.), bai eta Diario de Noticias de Álava eta El Correo egunkarietan ere.

2026ko martxoaren 6an, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintza-zerbitzuan Lubianoko Administrazio Batzarraren eta Vitoria-Gasteizko Kontzejuen Elkartearen eskaera bana jaso ziren, honako hauei dagozkien txostenak eta alegazioak egiteko epeak luzatzeko: jendaurrean jartzeko izapidea, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egitea eta tartean dauden toki erakundeei eta lurraldea dela eta eragindako administrazio batzarrei entzunaldia ematea. Horiek guztiak Vitoria-Gasteizko eta Burgeluko udalerrietako lurzoru urbanizaezinean Vitoria Solar 2 Parke Fotovoltaikoa egiteko Plan Bereziaren (Indarberri SLk egina) hasierako onespenerekin batera erabaki ziren.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31.5.b) artikulua adierazten duenez, hirigintza planaren hasierako onespenerekin batera, jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidearen mende jarriko da plana, berrogeita bost egun balioduneko epean, iragarkia dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik aurrera; plana, era berean, tirada handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da; horrez gain, eta aldi berean, eraginpeko administrazio publikoen eta alde zuzeneko kontsulta egin zaien pertsona interesdunen kontsulta izapidearen mende ere jarriko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du 32. artikuluan: "Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere".

Aurkeztutako eskaerek honako hauetan oinarritzen dute epeak luzatzeko eskaera: plan bereziaren dokumentazio eskerga, eskatzaileek dituzten baliabide eskasak eta eragindako lurraldearen eta biztanleriaren interesetan duen inpaktu nabarmena eta eragina.

Aipatutako arrazoiak aztertu ondoren, eta aipatutako araudiaren eta aplikatu beharreko gainarazoaren arabera, egokitzat jotzen da eskaera onestea; izan ere, uste da epeak luzatzeak ez diela funtsean eragingo espediente izapidetzeko eta ebazteko epeei, eta espedienteak nolabaiteko konplexutasuna du, izan ere.

Horrenbestez, nire eskumenekoak diren ahalmenak erabiliz, Arabako Foru Aldundiko 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen urtarrilaren 30eko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 1/2024 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hogeita bi (22) egun baliodun luzatzea izapide hauek egiteko epea: jendaurrean jartzeko izapidea, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultatzea, tartean dauden toki erakundeei eta lurraldea dela eta eragindako administrazio batzarrei entzunaldia ematea. Izapide horiek guztiak Vitoria-Gasteizko eta Burgeluko udalerrietako lurzoru urbanizaezinean Vitoria Solar 2 Parke fotovoltaikoa egiteko plan bereziaren (Indarberri SLk egina) hasierako onespenerekin batera erabaki ziren.

Bigarrena. Ebazpen hau eskatzaileei, sustatzaileari, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, tartean dauden toki erakundeei eta lurraldea dela eta eragindako administrazio batzarrei jakinaraztea, eta Arabako egunkaririk zabalduenetan eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.3 artikuluan ezarritakoarekin, epeak luzatzeari edo luzatzea ukatzeari buruzko erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka dagokiona jartzea.

Hasierako onespeneraren dokumentua, ingurumen azterketa estrategikoarekin batera, interesdunen eskura egongo da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren bulegoetan, jendearen harrera ordutegian, eta <https://web.araba.eus/eu/hirigintza/parke-eolikoen-plan-bereziak> web orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 11n

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**